

EUSKARA HIZKUNTZA GAZTEA DA

“Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza-erronka nagusiak” da Sabino

Arana Fundazioak eta

Euskaltzaindiak proposatu didaten izenburua idatzi honetarako. Eskertzen diet Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean oraintxe esku artean ditugun gogoetak eta eginkizunak aurkezteko aukera hau.

2030era eta aurrerago eramango gaituen bidaia luzea irudikatu dut. Garai bateko pelikulatan aberatsek bidaia hartzen zutenean bezala, bidelagun modura egurrezko maleta edo kutxa handi bat eskuratu dut eta, kanpoaldea txukundurik, hamar gelaxka egin dizkiot barnean, eraman beharreko gauzak modu egokian atontzeko.

I. INGELESA ETA BESTE HIZKUNTZAK (GURE) MUNDUAN

NATO. 2022ko ekainaren 29 eta 30ean, NATO osatzen duten estatuen buruek batzarra izan zuten Espainiako hiriburuan. Ondorio bezala, Madrilgo Batzarraren emaitza nagusi modura onartu zuten, datozen 10 urteetarako, NATOren ikuspegi estrategikoa jasotzen duen agiria. Egunean bertan eskegi zuten aliantza atlantikoaren webgune nagusian, ‘Strategic Concept’ izenpean, ingelesez eta frantsesez.¹ Aste batzuk geroago, errusieraz eta ukraineraz.

Gaur ere horrela ageri da. Ez dago beste hizkuntzarik. Onetsi gabeko hainbat itzulpen dabil han eta hemen, baina ez dira bertsiio ofizialak. Frantses, ingeles, ogia gura eta hartu ez.

FRANTZIA. 2021eko otsailean, Le Figaro egunkarian argitaratutako elkarrizketa batean, Frantziako

Akademiaren bizi arteko idazkari den Hélène Carrère d’Encausse kezka larria plazaratu zuen, hizkuntza-erakundearen izenean, frantses hizkuntzaren egoeratik eta ingelesaren eraginez sortzen ari den “Franglais” hizkera lohi eta nahaspilatu frantses hizkuntza desegituratzen eta desegiten ari dela eta.² Esaten zuen egoera kritikoa direla, frantsesa ingeles mintzairaren itxura hartzen hasita dagoela eta atzera bueltarik ez duen egoerara iristeko puntuan direla. Azken bost urtean nagusi den joera omen da. Adibidez, gogor kritikatzeko du Frantziako Gobernuak, Nortasun Agirian frantsesarekin batera ingelese erabiltzeko hartu duen erabakiagatik. Geurea elebitan dator, gaztelaniaz eta euskaraz. Frankofoniaren kontzeptua oinarri hartuta, mundu osoari begiratuta alegia, frantsesa munduan hiztun gehien duen bosgarren hizkuntza da.

1. NATO 2022: Strategic Concept. <https://www.nato.int/strategic-concept/>

2. Le Figaro, 2021: Hélène Carrère d’Encausse “Nous sommes à un point critique”. <https://www.lefigaro.fr/langue-francaise/actu-des-mots/helene-carrere-d-encausse-nous-sommes-a-un-point-critique-20220214>

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA
ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO
SAILBURUA

ESPAINIA. 2021eko abendua. Donostiako Tabakalera. Cervantes Institutuak munduan zehar dituen zuzendariak ekarri ditu urteroko batzarra egitera. Zuzendarien artean gehien-gehienek gaztelaniak munduan zehar dituen garrantzia eta hiztun mordo azpimarratu zituzten. Baina Bruselan lan egiten duten ordezkari espainiarrak kezkatuta ageri ziren, gaztelaniak Europan neurri txikiagoa duelako eta Europar Batasuneko bilera eta agirietan ez dagoelako hizkuntza nagusi modura txertatua eta erabilia. Itzulpenetan ageri da, baina ez da sorkuntza-hizkuntza. Eta mundu mailan atzenduta gertzen ari da ingelesa, txinera eta arabieraren atzetik.

Espainiako gobernuak helburu nagusi bihurtu du Espainia izatea munduan gaztelania edo espainieraren ordezkari nagusi eta erreferentzia. Misio horretan ari dira eta hori bihurtu dute estatu-helburu nazioarteko politiken artean. Horren adibide argia da Espainiako presidente-orde Nadia Calviñok eta Kultura ministroak urrian Frankfurtan izan den Liburu azokarako aukeraturako mintzagaia: “El español y el poder económico de la lengua en la era digital”.

Zer mundutara goaz? Nola garatuko da hizkuntzen arteko harremana edo lehia datozen 10-15 urteetan munduan? Zelan Europan?

Nahiz eta Erresuma Batuak Europar Batasuna kitatu duen, ingelesa da Europako harremanetan hizkuntza frankoa. Europar estatuetakoa arduradunak

(Alemaniaren salbuespena eginda) beldur dira beren hizkuntza handiak hein batean desagertzeko, moteltzeko arriskuan direlakoan. Gramatika, hiztegia eta sintaxiaren ikuspuntutik izaeraz aldatzeko arriskuan ikusten dituzte, hizkuntza-erlaketaren beldur dira eta horri aurre egiteko hizkuntza-politikak sustatzen ahalegintzen dira.

Europar Batasunak orain arte ez du asmatu bere hizkuntza-aniztasuna babesten, eta kultura-aniztasuna kudeatzen. Estatu bakoitzak bere hizkuntza nagusia du helburu, ez Europaren ezaugarri den hizkuntza-aniztasuna. Europa mailan ez da ageri aniztasun hori indargune bezala ikusten duen edo nortasun-ezaugarri bihurtuko duen pertsona edo erakunde buruzagirik. Hizkuntza bat baino gehiago duten estatuetakoa agintariek ere ez dute lehenetsun nork bere gizartean duen ugaritasuna kudeatzea. Aniztasuna zaindu eta balioetsi beharrean, nork berea gorde nahi du eta handik ingelesera salto egin.

Ingelesa europarron arteko komunikazio-hizkuntza nagusia izango da. Ulertzekoa da beraz arrisku-sentsazioa.

Zer esan gure kasuaz?

Datorrena datorrela, arrisku eta erronka potoloa izango da, erkidego txikia gara eta euskara ez da beste inon hitz egiten. Arrisku eta erronka-egoera honek ahalegin handia eskatzen digu -gure kasuan lehenik Espainian, eta beste bidelagun batzuekin batera, Europan-, euskararen eta beste europar hizkuntzen agertokian tokia irabazteko.

Ez dugu bidelagun asko izango. Ez gara, gainera, estatu-hizkuntza eta hori ere zailtasun izango da bidelagunak aurkitzeko orduan; baina ekitea beste biderik ez dautu. Ezinbestekoa da Nafarroako eta Iparraldeko herri erakunde, ordezkari politiko eta gizarte eragileekin batera jardutea. Espainian, Frantzia eta Europan hitz egiten diren beste hainbat hizkuntza-erkidego ere bidelagun beharko ditugu. Eta gure alde dugu urte hauetan egindako bidea eta irabazitako eskarmentua eta ezagutza.

Badakigu zer den maldan gora ibiltzea.

II. ESTATUAN ZER?

Espainiako agintarien artean ez dago batere kezkarik, ez inongo atxikimendurik, hizkuntza-aniztasunarekiko, nahiz eta Estatuko herritarren ia erdia hizkuntza ofizial bi ditugun erkidegoetan bizi. Frantzian, gutxiago. Ez da kezka-iturri. Ez dago aniztasunarekiko errespeturik, ezta gai honi heltzeko asmo edo borondaterik ere.

Ezinezko dirudi, eleaniztasuna legez onartua dagoen arren, espainiar administrazioaren erakundeetan gaztelania ez den beste hizkuntzekiko sentsibilitaterik aurkitzea, eta ez da ikusten Espainiako Gobernuak erkidego ezberdinetan eskaintzen dituen zerbitzuetan inongo aurrerapausorik. Espainiako agintariak gaztelania dute buruan eta helburu, eta nekez eta asko kostata beteko dituzte beste hizkuntzetako hitzunerakiko dituzten betebeharrak.

Euskal erakunde eta eragileen eginkizunetako bat izango da euskararen onespina bermaraztea, eta Espainiako administrazioarekin harremana sortzen den gune eta zerbitzu guztietan euskal hizkuntzaren erabilera eskatzea eta hizkuntza-eskubideen errespetuaren aldeko betebeharrak betearaztea. Baita euskararen estatusa ziurtatzeko ahaleginetan etengabe jardutea ere. Eta adi-adi jarraitu beharko dira Justizia auzitegietatik noizean behin datozen epaiak. Sarritan ez dute aintzat hartzen gure hizkuntza ofizial bien inguruan azken lau hamarkadetan sortutako eta garatutako araudia eta jarduna.

Eta era berean, uste dut sentsibilitate gehiago erakutsi beharko genukeela beste herrietatik gure artean bizitzera etorri diren pertsonen ekarri dituzten beste hizkuntza eta kultura-tradizioekiko. Denon arteko bizikidetzarako eta haien gizarte-integrazioarako lagungarri izan liteke.

III. EUSKARAREN ESTATUSA

40 urte dira -1982ko azaroan izan zen- “Euskararen erabilera arauzkotzearen Legea”, Euskararen Legea, onartu zuela Eusko Legebiltzarrak. Interesgarria egin zait eztabaida saio hura gogora ekartzea.³

Legeak adostasun handia lortu zuen. Alde: EAJ, PSE, EE, UCD eta EPK. Abstentzioa Alianza

3. Eusko Legebiltzarra, 1982ko azaroak 24ko Osoko Bilkura: “Euskararen erabilera arauzkotzearen Legea”ren eztabaida-akta. https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/fd31c10e-0ee2-4b86-a8ee-f932c455747f

Popularrek. Ez zuten parte hartu Herri Batasunak zituen 11 legebiltzarkideek.

Gure Autonomia Erkidegoko lehen hauteskundeak 1980an izan ziren eta Euskararen Legearen lehen proposamena 1981ean aurkeztu zuen Jaurilaritzak Legebiltzar aukeratu berrian, Kultura sailburu zen Ramon Labaien eskutik. Baina Jaurilaritzak bertan behera utzi behar izan zuen ekimena, behar besteko babesik lortzen ez zuela ikusirik. Bigarren saioan, Garaikoa lehendakariak Pedro Miguel Etxenike Hezkuntza sailburuaren esku utzi zuen eginkizuna. Etxenikeren testu berrian oinarrituta atera zen legea beraz, negoziazio eta eztabaida luze baten ondoren.

Eztabaida eta puntuz puntuko bozketak eta boto-azalpenak irakurriz gero, argi ikusten dira zenbait legebiltzarkiderengan agertu ziren kezak. Baita baiezko botoa eman zuten batzuegan ere.

UCDko Jesús Vianak esan zuen egoera totalitarioaren arriskua zegoela, “siempre que no se respeten los derechos de los que, por ejemplo, no tenemos ganas de aprender euskera”.

Alianza Popularreko Florencio Arístegui parlamentari gazteak, bere aldetik, zera esan zuen: “Hoy aquí vamos a sentar las bases de un futuro que puede ser integrador o sumamente conflictivo, y vamos a decidir la recuperación o pérdida de algo que no pasará inadvertido al juicio crítico de la historia”. Baina beldur zen: “Este proceso otorga un amplio margen de discrecionalidad al Gobierno, que

prácticamente por vía de decreto va a decidir todas las cuestiones que afectan a la normalización del uso del euskera”.

Euskal Sozialisten argudioak ere prebentzios beteta zeuden; Jose Antonio Maturana, Juan Manuel Eguiagaray eta Ramon Jauregi izan ziren bozeramale sozialistak.

40 urte geroago orduko kezka eta beldur berberak ageri dira orduko UCD eta APren ondorengo artean. Modu leunagoan, baita PSE-EE, Elkarrekin Podemos, CCOO edo UGTko ordezkarien artean ere. Bistan da hainbat erresistentzia dagoela gure artean, eta pauso berri bakoitzak alde aurreko “kezka” sortzen duela. Zer egin?

Aurrera egitea beste biderik ez dago. 40 urteotako bideari begirada emanda, argi ageri dira aurrerantz emandako pausoak; baita zailtasunak ere. Eta, batez ere, adostasunaren bideak duen garrantzi ekidin ezina.

Beraz, euskararen estatusa bermatuko duen marko juridikoa garatzen jarraitu beharra daukagu, dekretuak findu, arauak ondu eta plangintzak landu eta onartuz. Ahalik eta adostasun eta akordio-mailarik zabalenarekin. Pausoak ematen jarraitzea beste biderik ez dago bizikleta eroriko ez bada.

2030erako bidean Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) berritzea dagokigu. Plan honek finkatuko ditu datozen hamar urteetarako helburu eta noranzko nagusiak. Prozesu parte-hartzaile zabala ipini dugu abian, Euskararen Aholku Batzordearen inguruan,

finkatuko ditugun ekintzek ahalik eta gizarte babesik zabalena izan dezaten.

IV. EUSKAL HERRI ELEBIDUNA

Pedro Miguel Etxenik 1982an Euskararen Legearen helburuak azaldu zituenean, argi zuen jomuga: elebitasuna. Gizarte elebiduna. Bestela esanda, hizkuntza ofizialei dagokienez, herritar elebidunez osatutako gizartea.

Nola irudikatzen zuen Etxenik euskal gizartea hizkuntzaren ikuspegitik? Ezaugarri hauek iragarri zituen:

- Gizarte batean bizi den jendetza guztia gai da hizkuntza bat eta berdinean baliatzeko arlo eta maila guztietan (gaztelaniaz).
- Batzuek beste bigarren hizkuntza bat (euskara) maila batean ulertzen dute.
- Beste batzuk, berriz, gai dira bigarren hizkuntza horretan (euskaraz) maila eta arlo batzuetan baliatzeko.
- Azkenik, beste batzuk gai dira bigarren hizkuntza hau (euskara) aktiboki erabiltzeko maila eta arlo guztietan.

Nire saileko kideek errietan egingo didate, elebitasunaz hitz egiten dudalako eleaniztasunaz hitz egin beharrean. Besteren batek gaztelania beharrean euskararekin batera frantsesa duten euskaldunak hitz egingo dit. Egia da. Gaztelania eta frantsesaz gainera, ingelesa ere egongo da tartean, eta gure artera bizitzera etorri diren askoren jatorrizko hizkuntzak, bai horixe.

Baina euskaldunok, euskal hiztunok, denbora batez, batik bat elebidun izango gara.

Euskara eta gaztelania, edo euskara eta frantsesa, jakingo ditugu eta erabiliko ditugu askotan edo gehienetan, era nahasian gainera. Batzuetan, formalki euskara huts eta jasoan hitz egingo dugu; beste batzuetan, gaztelaniara -edo frantsesera- salto egingo dugu; bestetan, hizkuntza biak nahastuko ditugu gure berbaeran; eta beste askotan, guztiz bortxatuko ditugu euskararen, frantsesaren edo gaztelaniaren hiztegia, gramatika eta sintaxia, euskaltelean edo euskofrantsesean jardunda. Euskara, frantsesa, gaztelania, ... hizkuntza edo hizkera baten edo bestearen hautua egingo dugu, solaskidearen arabera, gure lantokiaren arabera, eman nahi dugun mezuaren arabera...

Baina pentsa liteke, gure gizarteak hartu duen bidea ikusita, bai 2022an eta bai 2030 edo 2036an, geroz eta gehiago izango direla euskara, gehiago edo gutxiago, jakingo duten euskaldunak.

Gure artean jaio, hazi eta heziko diren haur eta gazte gehienak badira gure bi hizkuntza ofizialetan elebidun, haien artean alde nabarmenak dauden arren gaitasunari eta erabilera-mailari erreparatuz. Bi hizkuntzak erabiltzeko aukera zabalduz gero ahalik eta arlo gehienetara egingo dugu bidea.

Baina, puntu honetan, Etxenikeri heldu nahi diot berriro: “Para lograr este objetivo de bilingüismo real y efectivo hemos de ser firmes en los principios y en el cumplimiento de los deberes que nos impone el Estatuto, con el fin de que la igualdad de las lenguas oficiales sea real, pero hemos de ser realistas y flexibles en la aplicación de dichos principios. Tardará mucho tiempo llegar a esta igualdad”.

V. NON GAUDE ETA NORANTZ GOAZ?

2022ko uda hatsarrean aurkeztu zuen Netflix ikus-entzunekeo plataformak ‘Intimidación / Intimicity’ Bilbon, Txintxua euskal ekoizpen-etxearen talentua baliatuta grabatutako telesail ikusgarria. Bertan, zenbait pasartetan, euskara erabiltzen dute pertsonaiek, hala nola, gurasoek haurrei hitz egiterakoan, edo irakasleak ikasleei, eskola orduetan.

Honaino iritsi gara.

Gero eta gehiago, derrigorrezko ikasketak egitera iristen diren haurren gurasoek D eredia aukeratzen dute beren seme-alabentzat. Aurtengo ikasturtean % 82,4k aukeratu du D eredia eta % 2,4k A eredia. Familia-erabaki horren ondorioz, euskara ikasi duten haur eta nerabeen kopurua biziki igo da gure Erkidegoan, lurralde guztietan gainera.

2022an Soziolinguistika Klusterrak kaleko euskararen erabileraz egin duen neurketaren emaitzak ezagutzen ari gara herriz herri.⁴ Denetatik dago. Kasu batzuetan datu positiboak ageri dira; beste batzuetan, ez

horrenbeste. Seguruenik horrela izango da gerora ere. Gorabeherrez betetako bidea izango da, argiz eta ilunez. 2023an izango ditugu Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak egiten duten VII. Inkesta Soziolinguistikoaren datuak.⁵

Orain artekoak aztertuta, badira ontzat eman ditzakegun ondorio gutxi batzuk:

- Euskara batez ere haurren ahotan entzuten da.
- Gazteen artean ere bai, baina gutxiago.
- Guraso euskaldunok euskaraz hitz egiten diegu geure seme-alabei.
- Familia askotan, gurasoek, nahiz eta euskal hiztun berriak izan, euskara transmititzen diete seme-alabei.
- Eskola eta etxea dira euskara gehien erabiltzen den tokiak.
- EITBK ekarpen handia egin du, batetik, hizkuntzaren normalizazioan izan duen garrantziagatik, eta bestetik Euskal Telebistak, Euskadi Irratiak eta Gazteak berebiziko bidelaguntza eman dietelako berrogei urteotan jaio, koskortu, gaztetu eta heldu diren hainbat herritarri.
- Euskara hezkuntza-sistemaren bitartez ikasi duten haur eta gazte askok ez dute etxean euskaraz hitz egiteko modurik; ezta ikasgelatik kanpo ere.

4. Soziolinguistika Klusterra, 2022: Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Euskal Herria, 2021. <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-euskal-herria-2021-2/>

5. Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Euskararen Erakunde Publikoa, 2019: VI. Inkesta Soziolinguistikoak Euskararen eremu osoa. 2016. https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf

- Euskal hiztunak administrazioarekiko harremanak, gero eta gehiagotan, euskaraz egin ditzake.
- Hezkuntza araututik haratago, euskaraz ikasten jarraitzeko aukerak handitu dira. Bereziki aipagarria da helduen alfabetatze eta euskalduntzean euskaltegiek egindako ekarpena.
- Euskaraz lan egiteko aukerak handitzen ari dira, batik bat soziolinguistikoki eremu euskaldunenak direnetan.
- Euskarazko Kultur sorkuntza eta eskaintza ugaltzeko egin da.

Hauek dira euskararentzat irabazi ditugun esparru batzuk. Baina gure erronka nagusiak ere hor dira.

2030. urteari begira, euskararen erabilera normalizatuko bada, beharrezko izango da erabilera-esparruok zabaltzea eta ugaltzea. Helburu hori lortzeko, jomuga nagusi ditugu ikastetxe-giroko jarduerak, gelaz kanpokoak, edo kirola eta aisialdiarekin zer ikusia dutenak. Itun zabal bat lortu nahi genuke, udal mailakoa, haur eta gazteen gelaz kanpoko jardueretara euskara eramateko. Udalen eta guraso elkarten lan-kidetza nahi eta ezkoa izango da. Esperientzia pilotu bat egingo dugu 2023an. Horretan ari gara eta jarraituko dugu, 2030erako bidean.

VI. EUSKAL HERRITAR BERRIAK

1982an Legebiltzarra osatzen zuten kideek Euskararen Legea onartu zutenean ezin imajina

zezaketen 40 urte geroago gure gizartean ehun herritarretatik hamar atzerrikoak izango zirela. Duela 20 urte ehunetik bi baino ez ziren. Are gutxiago pentsa zezaketen, haur eta gazteen artean, eskolan, ehun haurretatik hamarretatik gora atzerrikoak izango zirenik.

Etorrin asko etorri da, eta jarraituko dira etortzen. Batzuk Afrikatik, Magreb eta Sahararen Hegoaldeko herrialdeetatik. Beste batzuk -oraingoz, gehienak-, Hego Amerikatik. Ekialdeko Europatik ere hainbat; nola imajinatu duela 40 urte horrelakorik?

Fenomeno berria da, beraz.

Gure artean lan egin eta bizitzera etorri diren euskotar berri hauek guk geuretzat nahi ez ditugun lanbide askotan nagusitu dira. Zenbait eskualdetan duela bost edo hamar urte euskaraz hitz egitea normala zen egoeratan -tabernan, jatetxean, supermerkatuan, okindegian, adinekoen zaintzan-, gaur ez da gauza erraza. Guk nahi ez ditugun lanbide horietan atzeritarrak daude, gehienak hegoamerikarrak, eta tokirik gehienetan oso zaila da modu natural eta berezkoan pertsona horiek euskaraz ikastea.

2030era begira etorkin horien seme-alabak izan behar ditugu gogoan. Eta hezkuntza-sistema izango da horiengan euskararen transmisioa eta zabalkundea bermatzeko bide nagusia. Hezkuntza eta inguruko jarduerak enparauak. Bertako euskaldunen eta etorkin berrien arteko harremana euskaraz ere izan dadin nahi badugu, bertakoak eta etorkin berriak jarri behar ditugu jomuga. Biak. Baten ahalegina izango baita, besteak beste, euskara ikastea eta euskaraz ikastea, eta bestearena, etxetik dakarren hizkuntza bere "laguna"rekin hitz egiteko baliagarria dela ohartaraztea, ahalduntzea.

Euskararen normalizazioan aurrera egiteko nahi eta ezkoa izango da halaber guraso horiengan euskararekiko sinpatia piztea. Asmatu beharra daukagu euskara integrazio-rako eta elkarbizitzarako bide bezala marrazten. Ez da erronka makala, baina horretan ere ez gara hasiberriak: gertatzen ari dena baino mugimendu sozio-demografiko handiagoak ere ezagutu ditugu.

Eta gaur ere badugu nora begiratu. Milaka etorkin jaso dituzten Lea Artibai edo Tolosaldea eskualdetako haur eta gazteen euskararen

erabilera-datu altuak begiratzea baino ez dugu. Posible da, eta zenbait ingurutan gertatzen ari da. Beste batzuetan, ordea, euskara arrotz eta deserosoa egiten zaie. Asko dago egiteko.

VII. GAZTEAK

Euskara gaztetu egin da. Munduko Hizkuntza gutxi-tuen errealitatearen kontrara, euskal hiztunen belaunaldi gazteak euskara etxean edo-eta ikastetxean ikasi eta erabiltzen du; eta aukera den eremuetan, beste esparruetan ere euskara bizirik dago haur, gazte, heldu eta adinduen ahotan

Euskara, modu orokorrean, gazteen buru-mihietan dago. Baina gazteak ez dira gehiengo gure erkidegoan eta gazte dira, gazte!

Euskaraz eskolatu, euskaraz ikasketak egin, selektibitatea euskaraz -nota onak aterata gainera-, urtez urte ikusten dugun bezala. UPV/EHU 2022-2023 ikasturtean matrikulatutako ikasleen erdiak ikasketak euskaraz egingo dituzte eta Deustuko Unibertsitatean, herenak. Hurrengo pausoa da gazte hauek aukera izatea lanbide-heziketako eta unibertsitate mailako ikasketei lotutako praktika dualak euskaraz egin ditzaten. Baina esan bezala, gazteak gazte dira eta haien burutan jarri beharra daukagu.

Eskolan, oro euskaraz; kalean, gutxiago. Erabileraren ikuspuntutik, helduak baino aktiboago agertzen dira azterlan guztietan, emakumezkoak bereziki, baina hobetzeko tarte handia dago. Azterketa lan bat egin dugu Agirre Lehendakari Zentroarekin, gazteen artean sumatzen diren zenbait diskurtso ezagutzeko eta horretan sakontzeko.⁶ Gazteek euskararekiko dituzten pertzepzio edo narratiba ezberdinak ditugu. Beraz, euskararekiko gazte-pentsamendu ezberdinak ditugu.

Euskarari lotuago agertzen direnen artean bi perfil daude: euskara euren identitatearekin lotuta ikusten dutenak (etxeari oso lotuak) eta euskararen biziberritzearekin bat egiten dutenak (eskolan ikasi eta euskararekin/euskal-tzaletasunarekin "konektatu" dutenak). Taldetasunaren printzipioei lotuta dauden gazteak dira.

6. Agirre Lehendakaria Center, 2022: Euskararen normalkuntzaren aukerak eta erronkak: gazteen eta udal teknikarien pertzepzioa. https://bideoak2.euskadi.eus/2022/04/11/news_76575/ALC_aurkezpena_2022_04_05.pdf

Gainerakoek (beste 5 perfil dira) euskararekiko atxikimendu oso ezberdinak dituzte, kontrako jarraitik, *sin-más* batera, eta euskararen auzia euren bizitzatik kanpo ikusten dute -"instituzioen ardura da; ez nirea"- . Printzipio indibidualista gailentzen zaie hauei.

Atxikimendu falta dago zenbaitengan eta ez dakigu kontu honi nola aurre egin. Ezinbestekoa izango da, lehenik, gaia ongi aztertzea, ikerketak egitea eta eragiteko moduak ikertzea.

Horra beste eginkizun bat.

VIII. EUSKARA BATUA

Garai batean, batasunaren inguruko xextra gure artean sortu zenean, 60 eta 70. hamarkadetan, Euskaltzaindiak proposatutako eredu batuaren alde egotea zen aurrerakoia, modernoa. Askorentzat, gure zaharren aurka jartzeko modu bat ere izan zen. Normalizazio bide garrantzitsua egin dugu harrez gero.

Gaur, adierazkortasunaren ize-nean, eredu formalak ez erabiltzea, edo informaletara jotzea da guay eta modernoa. Lagunartean, WhatsAppen, Instagramen, eredu ez formalak erabiltzea, adierazpide arautu eta estandarretatik aldentzea eta txokokerietara jotzea da modan nagusitu dena.

Gai honek arreta merezi du.

Ez ginen gauden tokian egongo eredu batu eta formal bat lortu ez bagenu. Zer izango zen irakaskuntza gaur, edo zer administrazioan euskarak izan duen aurrerapena, eredu estandar bat izan ez bagenu?

Ez dakigu lortuko dugun SIRI edo ALEXAk euskara ulertzea, baina lortzen badugu zaindu egin beharko dugu gure hizkera, erdaraz egiten dugunean bezala, makinei berba egiten diegunean. Bestela ez gaituzte ulertuko!

ITZULI itzultzaile neuronala lortzeko egin dugun bidea erreferentzia egoki bat izan daiteke. Hainbat urtez sortutako testu formal eta zainduak oinarria eman dute ITZULI eraikitzeke, eta arian-arian trebatzeko.

IX. EUSKARAREN MARKA: “EUSKARA POLITA DA, BAINA ZAILA”

Euskal Herriko Unibertsitateak ‘euskararen marka’ aztertzeko egindako inkesta batek hainbat ondorio interesgarri utzi dizkigu.⁷ Izenburukoaren moduko erantzuna jasotzen dugu inkesta bat baino gehiagotan, batez ere euskararik ez dakitenengandik. Baita epaileen baten epai zorrotzean ere.

Herritar gehienek ongi ikusten dute dakigunok euskaraz jardutea. Beste batzuek, euskara ezkerreko eta abertzaleen kontu bezala ikusten dute.

Euskaldunok argi samar dauzkagu euskararen gaineko kontuak, bai, baina gure gizartearen gehiengo ez da euskal hiztuna, batez ere adin batetik gorakoen artean. Haien jarrera hotzagoa da, eta haiek ere behar ditugu.

Euskararen erabilera handitzeko, euskararekiko atxikimendua maminatzeko, euskarazko produktuak kontsumitzeko, garrantzi handia du hizkuntza-gaitasunak. Euskaraz

7. NIK Ikerketa Taldea, EHU, 2022: “Euskararen marka, 2020”

jarduteko zenbat eta gaitasun handiagoa, orduan eta atxikimendu handiagoa. Erabilera estuki lotuta dago gaitasunarekin.

Herritarren gehiengoak ontzat ematen du erakundeek euskararen normalizazioaren alde egiten dutena eta ez zaie iruditzen euskara sustatzeko erabiltzen diren baliabideak xahututako diruak direnik. Bada hala ere, gehiegizko babes eman zaiola uste duenik, eta beste zenbaitek duda egiten du euskararen baliagarritasunari buruz: “Zertarako balio du euskarak? Euskararik gabe posible da hemen bizitzea?”

Euskara, dakigunok, hitz egin eta ulertzen dugunok, eramango dugu aurrera, beti gertatu den bezala, eta hitz egiteko gaitasuna duten gero eta hiztun gehiago izatea giltzarri izango da. Baina ez hori bakarrik. Ez dakitenean konplizitatea ere behar dugu. Haiek kontra jartzen baditugu, kontua nahastu eta korapilatu egingo da, eta gero eta zailtasun gehiago izango dira.

Uste dut Euskaraldia tresna eraginkorra izan daitekeela eginkizun honetan. Modu atseginean euskararen erabileraren inguruko kontzientzia hartzen laguntzen digu, eta konpromisoa eskatzen du. Erakunde eta gizarte-eragileen artean sustatutako ekimen honek, bultzada merezi du. Eta ikerketa, Euskaraldia eraginkorragoa izan dadin.

Horrekin batera, erakundeetako ordezkariak gai izan behar dugu hizkuntzaren inguruko diskurtso eraikitzaileak egiteko. Eta erakundeen izenean dihardugunean zer esan eta zer egin handia dugu euskararen prestigioa indartzeko ahaleginean.

X. DISKURTSOAK ETA ATXIKIMENDUA

Euskararen ikaskuntzaren eta erabileraren bidean aurrerantz jarraitzeko diskurtso errealistak behar ditugu. Egia esan behar dugu, denboraren perspektiba baztertu gabe, aurrerapausoak azpimarratuz eta falta dena eta ongi ez dagoena onartuz. Tokiz kanpo daude bai gehiegizko baikortasuna eta bai etengabeko ezkortasuna.

Ez gaude nahi genukeen bezain ongi. Hizkuntza txikia eta txikitua da gurea. Hiztun-komunitate mugatua du, ez da beste inon hitz egiten munduan eta hizkuntza indartsuak ditu auzo, inguruan eta hiztunon buruetan. Euskararen normalizazio-prozesua irudikatzeke bizikletaren irudia egokia iruditzen zait: pedalei etengabe eman ezean, geratu egingo da txirringa, eta jausi.

Gehiegizko baikortasunik ez beraz. Baina, kontu! Gure gaurko errealitatea ez da porrot eta huts egin duen prozesu batena, eta diskurtsoa ezin daiteke derrotista izan.

Horrenbesteko ahalegina egin eta ez du ezertarako balio?

Gure diskurtsoak onartu beharra dauka euskara ez dela oraindik normalizatutako hizkuntza, bere erabilera ez dela guztiz ohikoa, hiztun komunitate txikia duela -agian inkestetan ageri dena baino txikiagoa-, ez dugula oraindik bermatu arlo guztietan eta zernahitarako erabiltzeko aukera; ez dugula gure erkidegoan guztiok ezagutzen; eta hau guztia ez dela arazo bezala ikusten, ez onerako eta ez txarrerako. Asko dago egiteko, eta aurrera jarraitzeko akordio berriak beharko ditugu, ezberdin pentsatzen dugunon arteko jarrera adostuak.

Eta, zer dugu alde?

Nik esango nuke batez ere euskal gizarteak euskararekiko adierazten duen atxikimendua dugula alde. Euskararen normaltasunaren aldeko atxikimendua urtez urte areagotzen da, Inkesta Soziolinguistikoaren arabera. Eta horrek oinarri sendo bat ematen digu aurrera egiteko.

Gizartearen atxikimenduarekin batera, hiru indargune azpimarratuko nituzke.

Lehena, hezkuntza. Irakaskuntza-prozesua bihurtu da belaunaldi berrietan hizkuntzaren ezagutza eta gaitasuna eskuratzeko bide nagusia, modu naturalean.

Bigarrena, euskararen transmisioa, bereziki familietan gertatzen dena, gurasoen konpromisoz.

Hirugarrena, euskararen erabilerak familia askoren etxeko-giroan hartu duen indarra.

Indargune horietan oinarri hartuta bidea urratzen jarraitzea dagokigu, arloz arlo, pausuz pausu, elkarlanean, gizarte eragileekin batera, euskararen lurralde guztietan, konplizitateak jorratuz.

Euskararen egoera ez da nahi genukeena. Eta zailtasun berriei egin beharko diegu aurre. Baina noiz ez du izan maldan gorako bidea gure hizkuntzak? Noiz ez ditu izan zailtasunak ikuspegi soziodemografikotik? Noiz ez hizkuntza handiagoen mehatxua? Noiz izan du Estatuaren begirune eta bultzada?

Belaunaldi gazteak dira euskararen gotorleku nagusia, eta beren esparruak hizkuntzaren lurralderik libreenak: familia gazteak mugitzen diren inguruak, gure unibertsitateetako campusak, eskolak, jai-guneak, parkeak, jolas-guneak, kirola, kultura eta musika ekitaldiak, kirol-esparrua, ingurune digitala... Euskara hizkuntza gaztea da. Zer ez lukete emango beste hizkuntza gutxitutako hiztunek hori esan ahal izateko?

Azken hamarkadetan lan mordoa egin da euskararen inguruko jarrerak eta motibazioak ikertzen. Soziolinguistek ondo dakite zeintzuk diren erabileran gehien eragiten duten aldagaiak. Hor goi-goian agertzen da gaitasun-erlatiboa; hau da, hiztunok gure hizkuntza gaitasunaz dugun hautematea. Eroso sentitzen garen ala ez, erraztasuna dugun ala ez.

Euskararen transmisioa modu zabalagoan gertatzen ari da, eta, gainera, euskara aspaldi galdutako lekuetara ere heltzen ari da. Ez da perfektua, noski, ñabardura asko jar daitezke. Baina esan genezake hamarkada honetan jaioko diren umeek aspaldiko belaunaldirik euskaldunena osatuko dutela, bai euskarazko hezkuntzak hartu duen pisuagatik, bai etxeko transmisioak izango duen eraginagatik, nola ezagutzan hala erabileran.

Zer testuinguru soziolinguistiko eskainiko diegu 2030eko mugarri horri begira? Zer aukera aurkituko dituzte gazte eleanitz horiek euskaraz ere bizi ahal izateko?

Hamar gelaxkak beteta, maleta hartu eta bidaia hasteko ordua da.

